



APUNTEAK LINEAN HARTU ETA PARTEKATZEKO WEB ZERBITZUA

SERVICIO WEB PARA TOMAR Y COMPARTIR APUNTES EN LÍNEA

55

DEFINIZIOA Zer da?

Oharren bitartez informazio pertsonala gorde, antolatu, zentralizatu eta partekatzeko erabiltzen den aplikazio informatiko bat da. Horrez gain, informazioa askotariko datuekin (testua, irudiak, loturak, PDF artxiboak, etab.) konbinatzea ahalbidetzen du. Informazio hori kapturatzeko modu ugari ditu.

DEFINICIÓN ¿Qué es?

Es una aplicación informática que se utiliza para almacenar, organizar, centralizar y compartir información personal a través de notas. Además, permite combinar la información con datos variados (texto, imágenes, enlaces, archivos PDF...). Tiene múltiples formas de capturar esa información.

BALIABIDEAREN ERABILERA Nola erabiltzen da?

Aukeratutako web-zerbitzuan erabiltzaile-kontu bat sortu eta erabiltzaile-izena eta pasahitza idatzita sartzen da bertan.

Ikasgelako ikasle guztiek parteka dezakete erabiltzaile-izen bat; hori egiten badute, lan-talde bakoitzak karpeta desberdin bat erabiliko du, bertan bere kontsignari edo esleitutako gaiei edo aukeratu dituzten gaiei buruzko materiala gordetzeko. Mailako guztien artean ezarritako irizpide komunak erabiliz eta etiketen bitartez, talde guztien lanak elkarri lotuta eta integratuta geratuko dira. Hartara, ikasgelak gordetegi propioa izango du. "Erabateko biltegi digital" horrek hainbat aukera ematen du:

- Oharrak sortzea: formateatutako testuarekin; automatikoki gordetzen da
- Etiketak gordetzea

- PDF formatuko artxiboak gordetzea
- Web-orrietako kapturak gordetzea edo hainbat elementu aukeratu eta gordetzea
- Irudiak gordetzea
- Audioko eta bideoako artxiboak, Google Mapseko kapturak, etab., gordetzea
- Informazioa bilatzea, berreskuratzeko, oharren, loturen eta irudien artean, baita PDF artxiboen barnean ere.
- Posta elektronikoz edukia bidaltzea, emandako helbide baten bitartez; adibidez: erabiltzailea@m.evernote.com

UTILIZACIÓN RECURSO ¿Cómo se usa?

Se crea una cuenta de usuario en el servicio web seleccionado y se accede mediante usuario y contraseña.

Todos los estudiantes de una clase pueden compartir un usuario y cada equipo de trabajo utilizar una carpeta diferente almacenando material relativo a su consigna o a los temas asignados o elegidos por ellos mismos. Con criterios comunes establecidos entre todo el curso y a través de las etiquetas, el trabajo de todos los grupos quedará vinculado e integrado. De esta manera la clase tendrá un gran reservorio propio. Este "Almacén digital total" permite:

- Crear notas: con texto formateado que se guarda automáticamente
- Almacenar etiquetas
- Almacenar archivos en formato PDF
- Guardar Capturas de páginas web o algunos elementos seleccionados y guardarlos
- Almacenar imágenes.
- Almacenar archivos de audio, video, capturas de Google Maps...
- Buscar, para la recuperación de información entre las notas, enlaces, imágenes e inclusive en el interior de los archivos PDF
- Enviar contenido por correo electrónico mediante una dirección asignada, por ejemplo,

usuario@m.evernote.com

IKASGELARAKO GOMENDIOAK

Horrelako zerbitzuek ezaugarriak direla-eta, zerbitzu horiek oso egokiak dira hezkuntzan erabiltzeko. Izan ere, apunteak hartu eta partekatzea ahalbidetzeaz gain, aukera ugari ematen dute: eskola-garaian edo ondoren apunteak osatzea, era guztietako artxiboak eta loturak gorde eta etiketa eta karpeten bitartez antolatzea, zerrendak egitea, kontzeptuen glosarioak sortzea, esaldi-artxiboak sortzea, irudi, pantaila-kaptura edo bideoen gordetegiak sortzea, etab.

Adibidez, irakasleak diagrama konplexu bat sortzen badu edo talde batek kontzeptuzko sare bat azaltzen badu arbel digital elkarreragilean (ADE), beste ikasleek argazki bat atera diezaiekete, sakelako telefonoaz Evernote erabiliz, eta ondoren irudiak apunteei erantsi; are gehiago, Evernoteko oharra koadernoan gehi dezakete QR kode bat itsatsita [[Info gehiago 10. fitxan](#)]. Edukia gaien, proiektuen, lan praktikoen, taldeen, unitateen edo irakasgaien arabera antola daiteke; gainera, beste tresna batzuekin integra daiteke, besteak beste markatzaile sozialekin eta Google Reader-ekin.

Tresna hori ikasgelan eskuarki erabiltzen denean, ikasgelako edukiak eta ikasleek —bakarka lan eginez ala taldean irakasleak gidatuta— sortu, aukeratu eta antolatutako materiala gordetzeko eta kudeatzeko zentro bihurtzen da tresna. Horrela jardunda denbora eta lana aurrez daiteke, ikasi eta azterketak prestatzeko. Hausnarketa lantzeko ere aukera handiak ematen ditu; baliabideak aztertu eta aukera onenak hartzea ahalbidetzen duten inguruneak eskaintzen ditu.

RECOMENDACIONES PARA EL AULA

Este tipo de servicios, posee características que lo hacen adecuado para su aplicación pedagógica. No sólo permite tomar apuntes y compartirlos, sino complementarlos durante o después de clase, almacenar enlaces o archivos de todo tipo y organizarlos a través de etiquetas y carpetas, hacer listas, crear un glosario de conceptos, generar un archivo de frases, construir un reservorio de imágenes, capturas de pantalla o vídeos...

Por ejemplo, si el docente dibuja un diagrama complejo o si un grupo expone una red conceptual, en la Pizarra Digital Interactiva (PDI), los otros alumnos pueden tomarles una foto con un teléfono móvil con Evernote y agregar las imágenes a los apuntes e incluso agregar la nota de Evernote en su cuaderno pegando un código QR [\[Más info en Ficha 10\]](#) El contenido se puede organizar por temas, proyectos, trabajos prácticos, grupos, unidades, o asignaturas, y además integrar con otras herramientas como los Marcadores sociales o Google Reader, entre otras.

El uso habitual de esta herramienta en el aula, la convierte en un centro de almacenamiento y gestión de contenidos del aula, del material producido, seleccionado y organizado por los mismos alumnos, producto del trabajo individual o colaborativo orientado por el docente. Esta práctica puede ahorrar tiempo y esfuerzo a la hora de estudiar y preparar los exámenes. También aporta grandes posibilidades en la práctica reflexiva, ofreciendo entornos que permiten revisar los recursos seleccionando las mejores opciones.

**GOMENDATUTAKO
GUNEAK**
Non aurki dezaket?

Evernote

<http://www.evernote.com/>

Doako aplikazioa (hala ere, badu "Premium" bertsio bat, funtzio gehiagorekin), web-etik, ordenagailutik edo sakelako telefonotik erabil daitekeena. Aparatu horiek tresnaren funtzionaltasuna biderkatzen dute, sinkronizatuta lan egiten badute. Kapturatzen den oro prozesatu, indexatu eta bilaketak automatikoki onartzen dituen material bihurtzen da.

Oinarrizko Evernoteri buruzko tutoriala gaztelaniaz

<http://www.youtube.com/watch?v=21AoQEBmk4M>

Evernoteri buruzko bideo-tutoriala

<http://vimeo.com/4336473>

Zotero

<http://www.zotero.org/>

Firefox-en hedapena da eta hainbat aukera azkar gauzatzea ahalbidetzen du, hala nola web-helbideak

**SITIOS
RECOMENDADOS**
¿Dónde lo
encuentro?

idaztea, haiei buruzko oharrak sortzea, sailkatzea, lotura hori zer taldetakoa izango den zehaztea eta ondoren lotura kontuarekin linean sinkronizatzea, kontua nabigatzailearekin sinkronizatzean beste ordenagailu batetik apunteak eskuratu ahal izateko.

Google ohar-bloka

<http://www.google.com/notebook>

Interneten barrena nabigatzean oharrak eta etiketak (tag) gehitu eta antolatzea ahalbidetzen duen tresna indartsua da. Oharrak beste batzuekin partekatu eta taldeko edizioa egin daiteke.

Evernote

<http://www.evernote.com/>

Aplicación gratuita (aunque cuenta con una versión "Premium" con funciones ampliadas) que se puede utilizar desde la web, un ordenador o un teléfono móvil. Éstos, si trabajan sincronizados, multiplican la funcionalidad de la herramienta. Todo lo que se captura se procesa, se indexa y se transforma en material que admite búsquedas automáticamente

Tutorial de Evernote básico en español

<http://www.youtube.com/watch?v=21AoQEBmk4M>

Vídeo Tutorial sobre Evernote

<http://vimeo.com/4336473>

Zotero

<http://www.zotero.org/>

Es una extensión de Firefox y permite de forma rápida apuntar direcciones web, crear notas sobre éstas, clasificarlas, determinar los grupos a los que se decide pertenezca este enlace y luego sincronizarlo con la cuenta en línea, de manera que desde otro ordenador se puede acceder a los apuntes al sincronizar la cuenta con el navegador.

Google Bloc de notas



<http://www.google.com/notebook>

Esta es una potente herramienta que permite agregar y organizar notas y etiquetas (tag) al navegar por Internet. Las notas se pueden compartir con otros y realizar una edición conjunta.

